


«Ziur naiz EA-EAJ koalizioa egingo dela Donostian»

Enrique Aranak jada 20 urte daramatza Donostiako Udalean eta aldia amaitu zaiola uste du. Ondorioz, datozen hauteskundeetan beste hautagai bat bilatu beharko du EAK, edo akaso, EA-EAJk. Honetaz eta beste hainbat gaiez mintzatu gara EA-EAJko zinegotziarekin.

Aitziber Iartza

Odon Elorzari gutxiengoan gobernatzeko ausardiarik ez izatea leporatu zenuenot bere garaian. Gaur egun gutxiengoan dago. Egoera hau gustukoago al duzue?

Legegintzaldi hasieran gobernuan ez girela sartuko esan genion, eta hori ez digu barkatu, eta uste dut ez digula inoiz barkatuko. Garai hartan Elorzari esan ge-



nion gutxiengoan agintzeko, eta gu zenbait gaitan laguntza emateko prest geundela. Baina ez zen horretara ausartu, egin zuen akordioa frontismoaren ondorio izan baitzen. PPren eta PSOEren artekoa akordio frontista izan zen. Hau 2001. urteko Udal Gobernu krisi larrian frogatu zen. Orduan PPko eta PSOEko buruzagi guztiek esan zuten Udal Gobernu ezin zela hautsi, Estatu arrazoia atzetik zegoelako.

Orain gutxiengoan dago. Baina, jada onartuak ditu aurtengo aurrekontuak, datorren urtekoak luzatzeko ez du arazorik izango... Gaur egungoa amarrugile baten jokaldia baino ez da.

Zein da EA-EAJren jarrera gaur egungo Udal Gobernuaren aurrean?

Kezka da nagusi. Ildo politikoan zaila izango zaigu akordioak lortzea, baina are zailagoa izango da Odon Elorzak hartu duen dinamika pertsonalistan. Maiatzaren 13an PSE-EEK Donostian hartu zuen jipoiaren eta EA-EAJk izan zuen gorakada nabarmenaren ostean, mutur muturreko

personalismoa ikusten ari gara. Pertsonalismo horrek ez du akordioak lortzeko laguntzen.

Urtebete pasatxo falta da hauteskundeetarako. EAJrekin koalizioan joatearen aldeko al zara?

Uste dut negoziazio prozesu bat hastekoan zuhurtasuna beharrezkoa dela. Negoziazio hori ematen ari da. Ni ez naiz, duela hiru urte gertatu bezala, hauteskundeak gainean izan arte itxarotearen aldekoa.

Ni ziur naiz Donostian bi alderdiek koalizioa egingo dutela. Nire ustez, hori da donostiarren nahia. Gipuzkoan ere koalizioa egingo dela uste dut, eta beste lekuetan ikusiko da.

Duela gutxi esan duzu ez duzula udal txean jarraitzeko asmorik. Zure azken legegintzaldia al da honakoa?

Aspalditik nabil politikagintzan eta oso argi dut politikagintza ez dudala inoiz utziko. Baina, zenbaitek, baita Odon Elor-

20 urte
Udalean
egotea
gehiegitxo dela
uste
dut

**Batasuna
ilegalizatuko
balute,
mobilizazio
aukera aipatu
da EAn**

zak ere, urte asko daramatzagu Udalean, eta gertatu ohi da ideiarik gabe geratzea edo kudeaketarako gaitasun gabe... Hortik eratorri ohi da jendearekin kontakturik ez izatea; demogogian aritzea... Demagogiak balio dezake hauteskunde batzuk irabazteko, baina ez gobernatzeko. Horregatik, beste jende bati bide eman behar zaio. 20 urte Udalean egotea gehiegixko dela uste dut, eta erretiratu beharra dago. Berrikuntza eman behar da. Uste dut nik etapa bat bukatu dudala.

EARI dagokionez, ordezkoa ziurtatua al duzue?

Bai. Inor ez da ezinbestekoa. Gaur egun dugun taldearekin, oraina ezezik, etorkizuna ere prestatzen ari gara.

Batasunaren aurkako polizia operazioa egin berri da, eta bi donostiar ere atxilotu dituzte. Zein iritzi duzu?

Operazioetan badira bete beharreko baldintza batzuk eta, beteko balira... Horretarako daude legeak. Ideia edo alderdi baten ilegalizazioa zentzugarria da, bere garaian egunkari bat itxi izana bezalaxe. Beste behin ere argi geratzen ari da PPK ez duela konponbideak mahai gainean jartzeko inolako borondatearik. Soilik ekintza-errepresioa-ekintza dinamikan sartu nahi du. Hori ikuspegi politikotik desegokia izateaz gain, herri honen interesen aurkakoa da. Herri honen interesen aurkako denez, gure aur-

kakoa ere bada. Gertatzen dena da honek guztiak botoak ematen dizkiela hemendik kanpora. Hor kokatzen dute 200.000 boto-emaitetik gora dituen alderdi batekin duten gatazka. Ez gara gaizkile batzuk atxilotzeko operazioaz ari, horrekin zerikusia ez duen zerbaitetaz ari gara. Ondorioz, azkenean, ez dakigu nork egiten duen biolentziaren apologia.

Espainiako Gobernuak Alderdien Lege berria indarrean jarri eta Batasuna legez kanpo uzten badu, zein jarrera hartuko duzue?

Alderdi mobilizazio baten aukera ere aipatu da, eta han egingo dugu topo, zalantzarik gabe. Gaur zugatik bihar nigatik. Halaber, espero dut ahal den epaitegi guztietan helegiteak aurkeztuko direla.

Bestetik, uste dut alderdi sozialistak asumitu egin behar dituela bere erabakiak. Demagogia da, Udalean egiten duten bezala, esatea alderdiak egiten dituen gauza batzuk gustuko dituztela eta beste batzuk ez.



Auditx Akularreko proiektua izan da azkenaldian ika-mika gehien sortu duena. Proiektua egiteko modua gogor kritikatu duzue. Eta proiektuaz zein iritzi duzue?

Ez gaude ados aurkeztzen ari zaizkigun Auditx Akularreko proiektuekin. Udaleko zenbait pertsona Altza bezalako auzo baten errealitatea zein izango den ezkututzen ari dira. 5.100 etxebizitza gehiago eraiki nahi dituzte inguru horretan eta gainezka egingo du. Milaka etxebizitza dauden zonaldean horrelako zerbait egitea izugarria da. Erraldoikeria da. Herrian 340 etxebizitza gehiago egin nahi dituzte, Nerecan aldean bat-batean beste 388, Buenavistan ere ia 400, Esnabiden ere 300. Beraz, ez gara soilik Auditx Akularri buruz hitz egiten ari, guztira 5.100 etxebizitzei buruz ari gara. Dirua lortzea helburu duen hirigintza eredura goaz. Aurrera eraman nahi den garapen basatiak iparra galduta dagoela erakusten du. Jada nahikoa masifikatuta dagoen inguru bat are gehiago masifikatu nahi da.

Euskararen Normalizazio Plana onartu zuen Udalak. Euskalduntzean urratsak eman al dira?

Ziurrenik onartu zenetik hona ez da asko aurreratu, baina Udalean daramatzagun urteetan izugarri egin da aurrera. Oro har, alderdiek gai honekiko sensibilitatea erakutsi dute. Hala ere, une honetan, PP-PSOE-ren desgobernuarekin, euskalduntzearen abiada mantsotu dela uste dugu. Baina, kontuan hartu behar da behin %50-%60 bete ostean, hurrengo pausoak ez direla hain azkarrak izaten.

EA Euskara Sailean egon zenean Beatriz Otaegik lan handia egin zuen. Gaur egun eman diren pausok garai hartakoen ondorio dira. Ziur naiz guk Euskara Saila eraman ez gero, gauzak hobe joango liratekeela.

Alderdiaren barruan euskalduntzea bultzatzeko neurriak hartu al dituzue?

Nik baietz uste dut. Alderdien barruan euskaldun kopurua igotzen da. Hala, gaur egun hainbat bilerak euskaraz edo elebizi egiten ditugu.